# Istripu eta herriratze aseguruaren kontratazioa

## Aseguru bat kontratatu behar dute, abiatu aurretik, nazioarteko mugikortasuna egin nahi duten UPV/EHUko ikasle guztiek

| | |
|---|---|
| ***HORI JASOTZEN DUEN ARAUDIA*** | Erasmus - 2023-24ko deialdia "Nahitaezko Dokumentazioa" atala.<br><br>AL eta Beste Norakoak - 2023-24ko deialdia - "Nahitaezko Dokumentazioa" atala. |
| ***KONTRATU BEHARREKO ASEGURU MOTA*** | ONARTUTAKO PLAZARAKO aurreikusitako EGONALDI OSOA estaltzen duten **bidaiako laguntza aseguru oro**. Honako hauek jaso beharko dituzte, nahitaez:<br>– Gaixotasunagatiko eta/edo istripuagatiko **mediku arreta**ko ohiko kontingentziak.<br>– Estaldura MUGAGABEA **herriratze gastuetarako heriotza gertatuz gero**, eta **jatorrizko herrialdera joateko osasuna dela eta**.<br><br>*UPV/EHUk IBILI ASEGURUA kontratatzeko aukera eskaintzen du. Edonola ere, edozein aseguru kontratatu aurretik, harrerako unibertsitatearekin unibertsitate horrek eskatzen dituen **gutxieneko osasun-estaldurak baieztatzea** gomendatzen da. |
| ***ZER AURKEZTU EUSKALHERRIKO UNIBERTSITATEAN*** | 1. **IBILI** asegurua kontratatzen bada, **"El resumen de tu seguro"** izeneko orria aurkeztu behar da.<br>2. **Bestelako aseguru bat kontratatuz gero**, aseguruaren kopian honako **datu hauek agertu beharko dira**:<br>– ***Aseguratutako pertsona***ren datuak (ikasleen datuak).<br>– Aipatutako ***nahitaezko estaldurak***.<br>– Indarraldi ***eremua*** eta ***estaldura aldia***.<br>– Asegurua ordaindu dela egiaztatzen duen ***banku egiaztagiria*** aurkeztu beharko da. |
| ***NOIZ ETA NON AURKEZTU ASEGURUA*** | Mugikortasuna hasi **AURRETIK, Ikastegi bakoitzeko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzaileari** aurkeztu behar da.<br><br>**GARRANTZITSUA**: ez dira akordio akademikoak sinatuko asegurua entregatu arte. |